

The background of the entire page is a close-up photograph of a loom. It shows several bundles of threads in various colors: white, yellow, red, orange, and blue. The threads are arranged in a way that suggests they are being prepared for weaving. The lighting is warm, highlighting the textures of the threads.

PARTE SAIOAREN ERREGISTROA
AGENDA 2030 FOROA

**LEGAZPIARROK GURE HERRIA
GARBI MANTENTZEKO DUGUN
KONPROMISOA**

2021eko abenduaren 16a

AURKIBIDEA

AGENDA 2030 FOROAREKIN, 2. SAIOA	3
Parte hartzaileak.....	3
Saioaren helburua eta kokapena	3
gaiaren inguruko kontzientzia eta inplikazioa lantzen.....	4
<i>Legazpiarrok gure herria garbi mantentzeko dugun konpromisoa indartzeko ekintza proposamenak lantzen.....</i>	4
Herriko txutxe - dendeekin lanketa.....	5
Herriko gunek desberdinak garbitzeari uztea + komunikazio/sentsibilizazio kanpaina gauzatzea.....	7

AGENDA 2030 FOROAREKIN, 2. SAIOA

PARTE HARTZAILEAK

Jarraian Abenduak 16an gauzatutako saioan elkartu ginen pertsonen zerrenda jasotzen dugu. Guztira, 12 lagun elkartu ginen eta Farapi Kooperatibako 2 kide egon ziren saioa dinamizatzen:

	IZEN ABIZENAK	ELKARTEA, ERAKUNDEA, NORBANAKOA
1	Xabier Arrondo	Nagusilanekeo bazkidea eta udal langilea
2	Maria Pilar Makibar Urizar	Legazpiarra
3	Juan Jose Zubillaga Aliza	Nagusilan
4	Iñigo Imaz	EAJ-PNV-ko zinegotzia
5	Asun Ugarte	EH Bildu-ko zinegotzia eta Nagusilanekeo bazkidea
6	Floren Gutierrez	Legazpiarra
7	Micaela García	Nagusilan
8	Garbiñe Basabe Arrizabalaga	Haztegi ikastola
9	Isa Sanz Guruciaga	Gazteria eta Hezkuntzako udal teknikaria
10	Edurne Ugarte	Ingurugelako teknikaria
11	Maite Lombide	Tokiko Garapen Iraunkorreko zinegotzia
12	Inma Hernandez	Tokiko Garapen Iraunkorreko udal teknikaria
13	Gabriela Renteria	Farapi Kooperatibako teknikaria
14	June Arechalde	Farapi Kooperatibako teknikaria

SAIOAREN HELBURUA ETA KOKAPENA

Lehenik eta behin, gaurko saioaren helburua zein izango den gogorarazi diegu partaideei: aurreko saioan legazpiarrok gure herria garbi mantentzeko dugun konpromisoa indartzeko aukeratu genituen bi ekintzak aurrera eramateko behar diren pausoak adostu eta lanketak nola bideratuko ditugun zehaztea.

Aurreko saioan egon ez ziren pertsonentzako, gogoratu ditugu aukeratutako bi ekintzak:

- Herriko txutxe-dendekin haien bezeroek dendetako ingurua garbi mantentzeko ekintza bat gauzatu.
- Herriko hainbat gune (bereziki zikinak egoten direnak) garbitzeari uztea denbora batez eta ekintza hau sentsibilizazio edo informazio kanpaina batekin uztartzea.

GAIAREN INGURUKO KONTZIENTZIA ETA INPLIKAZIOA LANTZEN

Aukeratutako bi ekintzen inguruko lanketarekin hasi baino lehen, saioan kokatu eta gure arteko elkar ezagutza indartzeko dinamika bat egin nahi izan dugu.

Horretarako, musika jarri dugu eta partaideei gelan zehar ibiltzea eskatu diegu. Musika gelditu denean haien inguruan zeuden bi pertsonekin elkartu eta hirukote bat osatuz hurrengo galderei erantzun behar izan diote erronda desberdinetan:

1. Azaldu anekdota bat non zuk zerbait egin duzun pertsonalki Legazpi garbiago mantentzeko.
2. Udalak eta Foroak Legazpi garbiago mantentzeko bultzatu dituzten ekintzetatik, ze gauza positibo identifikatzen dituzu?
3. Udalak eta Foroak Legazpi garbiago mantentzeko bultzatu dituzten ekintzetatik, ze hutsune identifikatzen dituzu?



Elkarrizketa interesgarriak izan ditugu gure artean eta hauek hurrengo ariketari heltzeko orduan lagungarriak egin zaizkigu oso!

LEGAZPIARROK GURE HERRIA GARBI MANTENTZEKO DUGUN KONPROMISOA INDARTZEKO EKINTZA PROPOSAMENAK LANTZEN

Esan bezala, aurreko saioan proposatu ziren ekintza desberdinen artean bi lehenetsi genituen:

1. Herriko txutxe-dendei paperontziak eta beste bilgarri edo ontzi berrerabilgarri batzuk ematea, denda-inguruetan garbiketa sustatzeko (adibidez, pipa-azalak botatzeko ontziak ematea).
2. Udalak espazio jakin batzuk aldi jakin baterako garbitzeari uztea eta komunikazio-eta sentsibilizazio-kanpaina bat abiatzea ekintza horrekin batera, jendea arazoaz jabetu dadin.

Gaurko erronka, beraz, ekintza horiek plangintza eta ardura banaketa batera eramatea izango da. Horretarako, taldea bi azpi taldeetan banatu dugu, norberak duen interesaren arabera ekintza bat edo bestea lantzeko aukera emanaz. Gerora, talde bakoitzak 45 minutu inguru izan ditu bere ekintzaren garapena diseinatzeko eta jarraian talde bakoitzak egin dituen proposamenak jasotzen dira.

Lanketa egiteko talde bakoitzari material desberdinak banatu genizkion:

- Ekintza gauzatuko den guneen argazki batzuk.
- Bere ekintza zehazteko erantzun beharreko hainbat galdera edo gai.
- Denbora-lerro bat, haien ekintza planifikatu eta ardura banaketa egiteko.

Hauek izan dira talde bakoitzak egindako lanketaren emaitzak:

Herriko txutxe - dendekin lanketa

LANKETAN PARTE HARTUKO DUTEN DENDAK	
	• Gazi Gozo
	• Hegialdeko kioskoa
	• Santi Kutz Kalea 2
	• Lau bide Kalea 10

Honetan aurrez identifikatutako proposamen bat eraman genuen honen gainean lan egin edota beste ekintzaren bat pentsatzeko. Proposamena azaldu eta aldaketa batzuk eginda hurrengo erabaki zen:

- Identifikatutako txutxe dendetan, plastikozko hodi handi batzuk jarriko dira.
- Ekintzaren helburua: Herria garbi mantentzea izango da. "zein goxoa den lurra garbi mantentzea"
- Hau horrela, herri mailako erronka bat egitea planteatuko dugu, erronka herria garbi mantentzea izango da, pipa azalak lurrera ez botaz. Hau da, ez da lehiaketa bat izango, txutxe dendak batera egingo duten erronka bat baizik.
- Pipak erosten dituzten legazpiar guztioi, berrerabilgarria izango den edalontzi bat emango zaie, bertan pipa azalak bildu beharko dituzte, ondoren plastikozko hodira botaz, ondoren edalontzia bueltatzen dutenean zozketa baterako zenbakiak oparituko zaizkie.
- Pipa azalen hodia bezala ere, beste hodi bat jartzea pentsatu da bertan plastikozko poltsak biltzeko helburuarekin, hala ere, honetan ez litzateke lanketa berezirik egingo.

Helburua, ohitura aldaketa bat ematea litzateke, pipekin egiten den bezala plastikoa-rekin ere egiten hasteko.

- Denda bakoitzak bere zozketa propioa burutuko luke. Ze sari banatu erabakitzeke dago, proposamen ezberdinak egon dira (dendetan kontsumitzeko bale bat, escape-roomerako sarrerak,)
- Ekintzari, modu bateratuan emango diogu bukaera egun berezi bat antolatuz. Hone-tan zozketak gauzatzea gainera, ekintza bereziren bat egitea planteatu daiteke.
- Parte hartzen duten dendei ere errekonozimendu bat ematearen beharra identifikatu da. Hau horrela, identifikatzen duten ziurtagiriren bat sortu dendan jartzeko edo.
- Komunikazio kanpaina potente baten beharra identifikatu da. Proposamen bat egin dute “moskeo kanpaina” bat abiatzeko, denden atarian zirkulu berde batzuk agertzea ekintza baino egun edo aste batzuk lehenago. Hasiera batean zirkulua bakarrik agertu daiteke, ondoren leloarekin eta gero ekintza aurkeztu. Hala ere, hau ideia bat litzateke, oraindik ere gehiago zehaztu behar da.
- Biltzen diren pipa azalekin zerbait egin daitekeen pentsatu daiteke, hauek bildu eta berrerabili ahal izateko¹.

¹ <https://www.eskolankonposta.eus/es/compost-con-cascaras-de-pipas/>
<https://real-sociedad.diariovasco.com/anoeta-pipas-reciclaje-20190213130407-nt.html>
<https://www.diariorenovables.com/2016/06/conoce-el-proyecto-ecopeel-cascaras-de-pipas-para-calentar-duchas.html>

-Lanketa denboralizatzen saiatu ginen:

Zeregina	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
Ekintza bera gauzatzea					20ko astean (ostiralean hasiz)	Lehen 2 asteak 3tik 23ra (ostiralean hasiz)
Ekintzaren antolaketarako bilerak	(bilera 1)	(bilera2)	(bilera 3)			
Komunikazio kanpainaren diseinua: - Eslogana - Ontziak diseinatu eta egin (hau ikastetxeekin diseinatu daiteke) - Moskeo kanpina pentsatu, den-den inguruan zirkulu berde batzuk agertzea lurrean pintaturik - Ondoren, moskeo kanpainak zentzua izateko leloarekin ere erlazionaturik egotea komeni						
Komunikazio kanpainaren gauzatzea						

Herriko gune desberdinak garbitzeari uztea + komunikazio/sentsibilizazio kanpaina gauzatzea

- Ze gune ez dira garbituko?

GARBITZEARI UTZIKO DIREN GUNEAK		
	• Kultur etxe ingurua	
	• Nafarroa kalea 18	
	• Latxartegi parkea	
	• Lau Bide kalea	ESPAZIO HAU TALDEAK GEHITU DU
• Agirre-Etxeberri parkea	ESPAZIO HAU TALDEAK GEHITU DU	

- Zeintzuk dira ekintza gauzatzeko zehaztu behar ditugun gaiak?

GAIK	PROPOSAMENAK
Espazioa guztiak batera utziko dira garbitzeari? Edo banaka?	<ul style="list-style-type: none"> • Espazio guztiak batera garbitzeari utziko da 15 egun jarraian hurrengo hilabeteetan: Martxoa, Apirila, Ekaina eta Uztaila. • Maiatzan ez da ekintza gauzatu jaiak direlako eta ez da egokia ikusten jaietan garbitzeari uztea. • Garbiketa egiteari ostiral batean utziko zaio eta bi astez egongo dira gunek garbitu gabe (14-15 egun).
Nolakoa izango da ekintzarekin batera gauzatu den komunikazio kanpaina	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeak ez du mezua zehaztu baina gaia Urtarrilean gauzatu den koordinazio bileran landu behar dela uste da. Gerora, materialen diseinu eta sorkuntza udalaren ardura dela uste da. • Ekintzaren komunikazioari begira garatu den ideietako bat "puntu-zikin" bezala izendatzea gunek horiek izan da. Horretarako, euskarri batzuk sortu eta gunek garbitu gabe dauden bitartean bertan erakusgai egotea planteatzen da. • Horretaz gain, guneen argazkiak ateratzea garbiketa egin aurretik eta ondoren (beti) proposatzen da.

<p>Ondorengo garbiketa nola egi- tea planteatzen dugu?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko hainbat eragilerekin elkarlanean; bereziki, ikastetxeak (Eskolako Agenda 2030 programaren baitan), baina baita herriko elkarteak ere. Nork parte hartuko duen atalean zehazten da haien inplikazioa nola lortu nahi den. • Garbiketa egunen antolakuntzari dagokionez, horrela lan egitea planteatu da: <ul style="list-style-type: none"> ○ 1º garbiketa txanda: Ontzi handien eta paperen jasoketa. Ostegun arratsaldean. ○ 2º garbiketa txanda: Pipa azalak eta bestelako hondakin bereziak (udalaren gailu eta tresna espezifikoak erabiltzea eskatzen duten hondakinak). ○ Beraz, guztira, ekintza hau Martxoa-Uztaila bitarte gauzatzeko 30-40 boluntario talde antolatu beharko lirateke (5 gune x 2 txanda x 4 aldiz errepikatzea ekintza = 40 talde). ○ Garbituko ez diren guneen artean alde handia dago garbiketan inplikatu behar den pertsona kopuruan eta horietako batzuk gune bakar bat bezala tratatu daitezkeela ikusi da garbiketa txandei dagokienez (adibidez, Kultur Etxe ingurua eta Nafarroa Kalea, 18). Horrek boluntario kopurua eta ekintzaren logistika arinduko luke, oro har, eta, beraz, lantzeko gai bat da. ○ Foroan parte hartzen dugun pertsonen boluntario taldeen koordinatzaile edo antolatzaile rolak banatu beharko genituzke gure artean garbiketa txanda bakoitzean. Beraz, gutako 5-10 pertsona inplikatu beharko lirateke gutxienez garbiketa txanda bakoitzeko. ○ Udalaren politikekin koherentzia mantentzeko garbiketa egiteko hondakinen bereizketa egin beharko da. • Hondakinen garbiketan parte hartuko duten pertsona edo eragileentzako "pizgarri" edo "errekonozimendu" bat txertatzea ere proposatu zen: adibidez, opari bat, zozketa bat, lehiaketa bat...
<p>Jasotzen denarekin zerbait egin nahi da? Zer?</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jasotzen diren hondakinak pisatzeko proposamena egin da, beti ere, bideragarria bada eta sinplea kudeatzen. • Bestela, behintzat ikusten da beharrezkoa puntu bakoitzean jasotzen den poltsa kopurua zein den zenbatzea eta informazio hori ekintzaren komunikazio kanpainan txertatzea.

Nork parte hartuko du?	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko ikastetxeak. Haiek inplikatzen 2022ko Urtarrilean Ingurumen teknikaria, hezkuntza teknikaria eta Alonsoren arteko bilera bat aurre ikusten da. Bertan, ikastetxeen inplikazioa lortzeko lan-keta nola egingo den adostuko da. Eskolako Agenda 2030 programarekin artikulatzea pentsatu da, baina agian egokiagoa da beste modu batean egitea. • Herriko beste elkarteak. Haiek inplikatzeari begira, Agenda 20/30 foroan parte hartzen duten teknikari desberdinen sareak eta harremanak baliatzea planteatu da (gazteria teknikaria, kirol teknikaria, ingurumen teknikaria...). Gai hau Foroaren koordinazio bileran landuko litzateke (2022ko Urtarrilean). • Erreka Egunaren bueltan sortu den taldeari deialdi zuzena egin ahal zaiola ere uste da. • Agenda 2030 Foroa. • Udal teknikariak.
Nork bideratuko du? (Lana antolatuko du?)	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak (Ingurumen teknikariak bereziki).

- Nolako izango da ekintzaren planifikazioa eta egutegia? ²

EKINTZA	ARDURA	URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA
Guneak garbitzeari utzi	Udala			x	x		x	x
Ikastetxeak proiektuan inplikatzen bilera.	Udal teknikariak (hezkuntza + ingurumena) + Eskolako Agenda 2030 programako dinamizatzaileak.	x						
Herriko elkarteak inplikatzen eta ekintza antolatzen barne	Udal teknikari eta zinegotzia (Ingurumen saillekoak) + Agenda 2030 Foroa	x						

² Egutegi honetan, komunikazio-kanpaina egiteko bilerak zehaztuta daude. Logika hori bera aplikatu dezakegu beste ekintzan, diseinua aldi berean egiteko.

bilera								
Komunikazio kanpainarako mezuak definitu + euskarriak sortu eta inprimatu	Agenda 2030 Foroa (mezua eta formatua diseinatu /proposatu) + Udala (euskarriak sortu eta inprimatu)	x	x	x				
Guneen argazkiak atera garbiketa egin aurretik eta ondoren	Garbiketa talde bakoitzeko arduraduna (Agenda 2030 Foroaren partaideak).			x	x		x	x
Gune bakoitzean jasotzen den zaborraren inguruko "datuak" jaso.	Garbiketa talde bakoitzeko arduraduna (Agenda 2030 Foroaren partaideak) + udal garbiketa zerbitzuak			x	x		x	x

PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

